Bizkaia
iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila
departamento de sostenibilidad y medio natural

# AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN ESPEDIENTEAREN MEMORIA

**Mendi eta Naturagune Babestuen ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua aldatzeko, Eucalyptus spp (eukaliptoak) generoko espezieen landaketari luzamendu bat ezartzeko.**

**Aurretiazko kontsulta publikorako epea**: 2021/11/22tik 2021/12/07ra

## Sarrera:

Kontsulta-aldi honetan, **5 bilera** egin dira ikuspegi eta interes desberdinak ordezkatzen dituzten hainbat erakunderekin, sektoreka sailkatuta; hainbat erakunderen **6 idazki** aurkeztu dira; eta partikularren **17 ekarpen** jaso dira (guztiak ere oso interesgarriak, eta, oro har, kontsultatutako ekimenari buruzko iritzien eta jarreren lagin adierazgarri eta zabala ematen dute).

## I.- Gizarte-eragileekin egindako bileretan jasotako ekarpenak:

1. **Bilera honako unibertsitate eta zentro teknologiko hauetako pertsonekin egin da: EHU/UPV (Landareen Biologia eta Ekologia Saila eta Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saila); HAZI Fundazioa eta NEIKER (Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea).**
   a. I.G.k (HAZI) honakoa mahaigaineratu du:
      i. Luzamenduaren iraupenari buruzko zalantzak, eta kaltetutako jabeentzako konpentsazioak aurreikusten diren.
      ii. Agian, akatsa izan daiteke lege- eta ekonomia-ondorio handiak dituen luzamendua planteatzea, eskubide subjektiboei eragiten baitie; eukaliptoaren kudeaketa luzamenduen beharrik gabe arautu daitekeenean (kudeaketa-moduak, mozketa-txandak, landaketa-esparruak...). Izan ere, arazoa “kudeaketarik ezean” egon daiteke

# MEMORIA EXPEDIENTE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA

**Para la modificación de la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Espacios Naturales Protegidos a fin de establecer una moratoria a la plantación con especies del género Eucalyptus spp (Eucaliptos).**

**Período de Consulta Pública Previa:** desde el 22/11/2021 hasta el 07/12/2021

## Introducción:

En este período de consultas se han mantenido **5 reuniones** con diversas organizaciones representativas de distintos ángulos de visión e intereses, agrupados por sectores, se han presentado **6 escritos** de diversas organizaciones, y se han recibido **17 aportaciones** de particulares, todas ellas muy interesantes y que aportan en conjunto una amplia muestra representativa de las diversas opiniones y posicionamientos respecto de la iniciativa consultada.

## I.- Aportaciones recogidas en reuniones mantenidas con agentes sociales:

1. **Reunión mantenida con personas de las siguientes Universidades y Centros tecnológicos: EHU/UPV (Dpto. de Biología Vegetal y Ecología y Dpto. de Políticas Públicas e Historia Económica); HAZI Fundazioa y NEIKER (Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario).**
   a. I.G. (HAZI) – Plantea:
      i. Dudas sobre la duración de la moratoria, y si se prevén compensaciones a las persona propietarias afectadas.
      ii. Quizá sea un error plantear una moratoria con grandes efectos legales y económicos por afectar a derechos subjetivos, cuando se puede regular sin necesidad de moratorias la gestión del Eucaliptus (Formas de gestión, turnos de corta, marcos de plantación…), ya que el problema puede estar en la “no-gestión”



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

landatzen denetik mozten den arte, abandonatzetik oso gertu dagoen eredu batekin. Horregatik, espezie horrentzako beste baso-eredu batzuk aztertzea eta planifikatzea proposatzen du: mozteko txanda 25 urtera luzatzea eta tarteko mozketak egitea, edo eukaliptoaren zuretarako erabilerak aztertzea... Espezieak eta haien baso-ibilbideak arautzea Aldundiaren eta haren zerbitzu teknikoen eginkizuna eta eskumena da.

iii. Era berean, ez da argi ikusten ekonomiaren ikuspegitik neurri egokia denik, are gehiago beste material batzuk zurarekin ordezkatzeko joera dagoela badakigu.

iv. Gainera, Bizkaiko egungo baso-jabetzaren soziologia aztertu beharko da (pinuaren gaitzaren eragina, belaunaldi-erreleboa, profesionalizaziorik eza, etab.). Belaunaldi-sekuentziaren logika bat dago. Uste du formula zorrotzak ezartzea modu negatiboan jardutea dela.

b. I.A.k, Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Sailekoak (Ekonomia Aplikatua Arloa) —EHU/UPV—, honakoa mahaigaineratu du:

i. Luzamendu batek zentzua izan dezake espezie hori nola arautu hobeto pentsatzeko denbora gisa. Baina luzamenduak ez du epe luzera izan behar; ez litzateke gomendagarria izango.

ii. Eukaliptoa landatzea zergatik aukeratzen den ulertzen du. Baina, era berean, uste du argi dagoela baliabide asko kontsumitzen duen espezie bat dela; eta mozten denean lurzoruak galtzeari eragiten diola, batez ere malda handiko lekuetan...

iii. Zer lehenesten dugu: ekonomia ala ingurumena?

iv. Interesgarria litzateke kudeaketa eredua aldatzea, txanda luzatuz, landaketa esparruak aldatuz, bai eta kokalekuei dagokienez ere, desorekak murrizteko neurri eraginkor gisa.

desde que se planta hasta que se corta, con un modelo que está muy próximo al abandono. Por ello plantea y propone que se estudien y planifiquen modelos selvícolas alternativos para esta especie: Prolongar el turno de corta a 25 años y con cortas intermedias, o estudio de los usos maderables del Eucalipto… Regular las especies y sus itinerarios selvícolas es función y competencia de la Diputación y sus ServiciosTécnicos

iii. Tampoco se ve claro que sea una medida adecuada desde el punto de vista económico, más si sabemos que hay una tendencia de sustitución de otros materiales por la madera.

iv. Además, habrá que analizar la sociología de la propiedad forestal en Bizkaia. (Afección de la enfermedad del Pino, relevo generacional, falta de profesionalización, etc…) Hay una lógica de secuencia generacional. Entiende que establecer fórmulas inflexibles es actuar de forma negativa.

b. I.A. del Dpto. de Políticas Públicas e Historia Económica (Área de Economía Aplicada) -EHU/UPV - Plantea que:

i. Una moratoria puede tener sentido como un tiempo para pensar mejor como regular esta especie, pero la moratoria no debe ser a largo plazo, no sería recomendable.

ii. Entiende porque se elige plantar eucalipto, pero también le parece que está claro que es una especie que consume mucho recurso, y que cuando se corta afecta a la pérdida de suelos sobre todo en lugares con grandes pendientes….

iii. ¿Qué priorizamos, la economía, o el Medio Ambiente?

iv. Sería interesante cambiar el modelo de gestión, alargando el turno, modificando los marcos de plantación, así como en relación a las ubicaciones, como medida eficiente de restricción de los



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

c. A. G.k (NEIKER) honakoa proposatu du:
   i. Komeni da argiago jakitea zergatik egiten den eta zer ondorio izango dituen, maila soziologikoan, ekonomikoan…
   ii. Halaber, zuraren benetako fluxuei buruzko azterketak egin behar direla ulertzen du, eta galdera hau egiten du: nahikoa izango dugu 20.000 Ha hauekin gure industrian pentsatuta? Azterlanak egin behar dira, nola arautu ondo jakiteko.
   iii. Ikuspegi horretatik, luzamenduak zentzua izan dezake espezie horren, herrialdearen beharren, ingurune naturalaren eta abarren ezagutzan sakontzeko.

d. I. A.k, EHU/UPVko Landareen Biologia eta Ekologia Sailekoak, honako hau azaldu du:
   i. Espezie honen izaera inbaditzailea eta kaltegarria defendatzen jarraitzen duen arren, interesgarria iruditzen zaio luzamendua hausnarketa on bat egiteko eredu jasangarriago batera aldatzen joateko, basoen funtzio aniztasuna eta eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoak kontuan izanda; ingurumena lehengoratzeko eredu berri baterantz aldatzen joateko, klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko, lurzoruaren galera murriztuz; eta eukaliptoak aberastasun organikoa, bertan bizi diren espezieak eta abar murrizten dituela erantsiz (Ministerioaren datuen eta EHUk eta Aranzadik egin berri dituzten azterlanen arabera).
   ii. Hausnarketa sakona egin dezagun krisi hau ondo kudeatutako lurraldea eta paisaia jasangarria ahalbidetzeko aukera gisa aprobetxatzeko.
   iii. Eremu babestuetan ez litzateke eukalipto espezierik landatu behar; bestalde, haritzak gehiago landatu beharko lirateke.
   iv. Espezie exotikoa da; inpaktu ekologiko handia du bai ibaietan, bai biodibertsitatean; eta, hala, onddoen, mikorrizen eta abarren aniztasuna

desequilibrios.

c. A. G. (NEIKER) Plantea que:
   i. Conviene tener una idea más clara de por qué se hace y qué efectos va a tener, a nivel sociológico, económico….
   ii. También entiende, que se deben de realizar análisis sobre los flujos reales de la madera y pregunta: ¿Vamos a tener suficiente con estas 20.000 Has pensando en nuestra industria? Hay que hacer estudios para saber bien como regular.
   iii. Desde esta perspectiva la moratoria puede tener sentido para profundizar en el conocimiento de esta especie, de las necesidades del país, del medio natural etc...

d. I. A., del Dpto. de Biología Vegetal y Ecología -EHU/UPV, plantea que:
   i. Con independencia de que sigue defendiendo el carácter invasor y perjudicial de esta especie, le parece interesante la moratoria para hacer una buena reflexión para ir cambiando a un modelo más sostenible, con la multifuncionalidad de los bosques y los servicios ecosistémicos que proporcionan, hacia un nuevo modelo de restauración del medio para hacer frente a los retos del cambio climático, reduciendo la pérdida de suelo, añadiendo que el eucalipto reduce la riqueza orgánica, las especies que habitan etc… (según datos del Ministerio y recientes estudios de la UPV y Aranzadi)
   ii. Hagamos una reflexión profunda para aprovechar esta crisis como una oportunidad para posibilitar un territorio bien gestionado y un paisaje sostenible.
   iii. En las zonas protegidas no se debieran plantar especies de eucaliptus, por otro lado, se debiera incrementar plantaciones de robles…
   iv. Es una especie exótica con un impacto ecológico importante tanto en los ríos, como en la biodiversidad, perdiéndose la diversidad de hongos, micorrizas etc...



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

galtzen da. Australiako eta Txileko suteen arazoak jarri ditu adibide gisa.

e. Balorazioa:

Ekarpenen zati handi bat espezie hori arautzeko ondorengo etapara bideratzen da, eta ekarpenen zati txiki bat baino ez dago luzamendura zuzenduta.

Luzamenduari dagokionez, azterketaren eta ondorioen angelu desberdinak dituzten jarrera desberdinak dauden arren, ondorio hau atera daiteke: kezkagarriak dira haren ondorio ekonomikoak, eta desberdina da jarrera luzamendua egokitzat jotzen dutenen eta espeziearen kudeaketa zuzenean arautuz jardutea hobe izango zela uste dutenen artean.

2. **Nekazarien elkarteetako pertsonekin izandako bilera. ENBA** Nekazaritza Sindikatua eta **LORRA** S. Koop. elkartea bertaratu dira (EHNE Nekazaritza Sindikatua ere gonbidatu zuten, baina ez zen bilerara joan).

a. Bileran jasotako iritziak:

i. Eukaliptoa ezin da debekatu ingurumenaren aldeko presioengatik, alternatiba errentagarririk ez dagoenean (txanda luzeagoa edo kudeaketaren baldintzak onartu ahal izango dira).

ii. Inbertsioa epe luzerakoa da; familia-taldeen inbertsioak dira, eta hartzen zailak dira horiek. Askok dituzte plantazioak erretirorako errenta-osagarri gisa, etab.

iii. Industriak eraldatzeko duen gaitasunari buruzko ziurgabetasun-egoera bat dago; eta, beraz, sektoreko jendeak ziklo laburraren aldeko apustua egiten du, arrisku gutxien sortzen duena baita.

iv. Sektoreko jendea dagoeneko gogogabetuta dago, pinua botatzen dutelako eta ezin dutelako ezer landatu. Une oso delikatua da, lur asko bertan behera uzten ari da eta sute-arriskua erreala da. Are gehiago, beldur dira zehapen-espedienteak ireki diezazkieketela, lurzoru ez-emankorrak

Pone como ejemplo los problemas de los incendios de Australia y Chile.

e. Valoración

Una buena parte de las aportaciones van dirigidas a la etapa posterior de regulación de esta especie, y sólo una pequeña parte de las aportaciones está dirigida a la moratoria.

Respecto de la moratoria, aunque hay diferentes posturas con ángulos divergentes de análisis y de conclusiones, se puede extraer la conclusión de que preocupan las consecuencias económicas de la misma, variando la postura entre quienes consideran adecuada la moratoria, y quienes estiman que mejor hubiera sido actuar regulando directamente la gestión de la especie.

2. **Reunión mantenida con personas de las Asociaciones Agrarias.** Asisten Sindicato Agrario **ENBA** y la asociación **LORRA** S. Coop. (Fue también invitado el Sindicato agrario EHNE, pero no asistió a la reunión)

a. Opiniones recogidas en la reunión:

i. El Eucalipto no se puede prohibir por presiones medioambientalistas, cuando no hay alternativas rentables. (se podrá aceptar un turno más largo o condiciones de la gestión)

ii. La inversión es a largo plazo y son inversiones de grupos familiares, que son difíciles de tomar. Muchos tienen las plantaciones como complementos de renta para la jubilación etc.

iii. Hay una situación de incertidumbre respecto de la capacidad de transformación por parte de la industria, de forma que la gente del sector apuesta por ciclo corto ya que es el que menos riesgo genera.

iv. La gente del sector está ya desanimada, porque echan el pino y no pueden plantar nada. Momento muy delicado, se está abandonando mucho terreno y el riesgo de incendios es real. Incluso temen que les pueden incoar expedientes sancionadores por tener los



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

izateagatik.

v. Kontuan izan behar da ekologisten eskaerak ezer arriskatu gabe egiten direla. Dena lursailaren jabetzaren kontura. Jendeak salatzen du nahita kentzen dizkietela puntak landatu berri diren eukalipto landareei.

vi. Beren buruari galdetzen diote: autoktonoen landaketek izango al dute etorkizunik? Ziurgabetasuna sortzen duten beste espezie alternatibo batzuen inguruan (itsas pinua eta kriptomeria, batez ere) galdetzen dute eta zalantzak dituzte; baita haien ekoizpen-zikloei buruz ere.

vii. Aldundiak esku hartu beharko du. Prozesu osoaren egutegiari eta denbora-ondorioei buruz galdetzen dute.

viii. Interesgarria da lurralde-oreka egotea, erabilera-aldaketak erraztuz. Hala, balio agrologiko handiko lurzoruak erabilera egokietara bideratu beharko lirateke. Izan ere, espedienteen gehiegizko konplexutasunak eta burokratizazioak ez die gazteei erabilera aldatzeko eta ustiategiak hobetzeko pizgarririk ematen.

b. Balorazioa:

Lehen sektorea lurraldearen benetako kudeatzailea da (basoaren % 75 partikularrena da); eta luzamendua espeziearen landaketa berrien debekutzat jotzen du ziurgabetasun eta gogogabetasun handiko une batean (une honetan ez da baso-landaketaren alternatibarik ikusten).

Haiek proposatzen dute egiten dena haiekin adostuta eta behetik gora egin behar dela.

3. **Elkarte ekologista eta naturalistetako pertsonekin izandako bilera. "EKOLOGISTAK MARTXAN"** erakundeko bi pertsona eta **"FUNDACIÓN BASOA/BASOA FUNDAZIO"**ko pertsona bat bertaratu ziren **(**"LURGAIA FUNDAZIO"koak ere gonbidatu zituzten, baina ez ziren bertan izan; bai eta "KOLORE

suelos improductivos.

v. Hay que tener en cuenta que las peticiones ecologistas se realizan sin arriesgar nada. Todo a cuenta de la propiedad del terreno. La gente denuncia que andan quitando intencionadamente las puntas a las plantas de Eucaliptus recién plantadas

vi. Se preguntan: ¿las plantaciones de autóctonos ya tendrán futuro? Preguntan y tienen dudas sobre otras especies alternativas, Pino marítimo y Criptomeria principalmente, que generan incertidumbre, también respecto de sus ciclos productivos.

vii. La Diputación tendrá que tomar cartas en el asunto. Preguntan sobre el calendario de todo el proceso, y las consecuencias temporales.

viii. Se ve interesante que haya un equilibrio territorial, facilitando los cambios de uso, de manera que los suelos de alto valor agrológico debieran destinarse a usos apropiados, apuntándose que la excesiva complejidad de los expedientes y la burocratización desincentiva a gente joven de proceder a cambios de uso y mejorar las explotaciones.

b. Valoración

El sector primario, que es quien gestiona el territorio (el 75% del monte es de particulares), ve la moratoria como una prohibición de nuevas plantaciones de la especie en un momento, de mucha incertidumbre y desánimo, en el que no se ven alternativas de plantación forestal.

Plantean que lo que se haga, ha de hacerse de manera consensuada y de abajo a arriba.

3. **Reunión mantenida con personas de las Asociaciones Ecologistas y Naturalistas.** Asistieron dos personas de la Organización **"EKOLOGISTAK MARTXAN"** y una persona de la **"FUNDACIÓN BASOA/BASOA FUNDAZIOA"** **(**Fueron también invitadas la "FUNDACIÓN LURGAIA" que no asistió, y la plataforma

Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

GUZTIETAKO BASOAK" plataformakoak ere —ez zen bilerara joan, baina idazki bat aurkeztu zuten—):

a. Talde ekologistak ordezkatzen dituzten pertsonen iritziak:
   i. Luzamendua lehenbailehen jarri beharko litzateke indarrean, atzerapenak landaketak gehitzearen eragin negatiboa izan ez dezan. Neurriak hartzea eskatzen da, luzamendua eraginkorra izan arteko epean baimen berriak eman ez daitezen, landaketa-eskaeren balizko olde baten aurrean.
   ii. Hostozabal autoktonoentzako % 100eko dirulaguntza egon arren, landaketa guztien % 30 gainditzen ez duenez, mahaigaineratu dute ea nola izan daitezkeen erakargarriagoak.
   iii. Azaldu dute landaketa-kupoak oso interesgarriak direla, eta eskualdeka aztertu beharko litzatekeela nola mantentzen den lurralde-oreka.
   iv. Baso-partzuergoei buelta bat eman beharko litzaieke, eta aukera aurreratuagoak pentsatu, egungo partzuergoen indarraldiak amaitzen direnean.
   v. Garrantzitsua iruditzen zaie arraseko mozketen ordez basoak kudeatzeko beste modu batzuk erabiltzea.

b. Fundazio naturalistako pertsonengandik jasotako iritziak:
   i. Bat datoz eukaliptoaren presentzia neurriz kanpo handituko den kezkarekin. Baso-masa heterogeneoak bilatzen dituzte. Mosaiko edo tesela moduan.
   ii. Ez dute hainbeste baloratzen luzamendu baten premia, aniztasunerako neurriak bezainbeste.
   iii. Kontsumoa da gakoa, gizarteak ez baitu baloratzen edo eskatzen kalitatezko zura, are gutxiago espezie autoktonoena; eta, beraz, kontsumo, kudeaketa eta abarren portaerak aldatzea eragingo duten politikak eskatzen dituzte.

"KOLORE GUZTIETAKO BASOAK", que no asistió a la reunión, pero aportó un escrito):

a. Opiniones recogidas de las personas que representan a grupos ecologistas:
   i. La moratoria debiera entrar en vigor cuanto antes para evitar que la demora provoque un efecto negativo de incremento de plantaciones. Se interesan en que se adopten medidas para evitar que en el plazo hasta que sea efectiva la moratoria, se den nuevas autorizaciones ante una hipotética avalancha de solicitud de plantaciones.
   ii. Ante el hecho de que aun existiendo una subvención del 100% para plantación de frondosas autóctonas, estas no superen un 30% del total de plantaciones, plantean a ver de qué manera pueden ser más atractivas..
   iii. Plantean que los cupos de plantación son muy interesantes, y que habría que estudiar por zonas cómo se mantiene el equilibrio territorial.
   iv. Habría que dar una vuelta a los Consorcios forestales y pensar en alternativas más avanzadas cuando se vayan acabando los períodos de vigencia de los Consorcios actuales.
   v. Les parece importante que se trate de sustituir las 'cortas a hecho' por otras formas de gestión forestal

b. Opiniones recogidas de las personas de la fundación naturalista:
   i. Comparten la preocupación de que aumente de manera exagerada la presencia de eucaliptus. Aspiran a masas forestales heterogéneas. En forma de mosaico o de teselas.
   ii. No valoran tanto la urgencia de una moratoria, como las medidas para la diversidad.
   iii. La clave está en el consumo, en la medida de que la sociedad no valora ni demanda la madera de calidad, menos aún de especies autóctonas, y por lo tanto, demandan políticas que provoquen un cambio de



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

iv. Ekosistema-zerbitzuei balioa ematea balioesten dute; ez bakarrik zur-hornidurakoei, baita erregulatzaileei edo soziokulturalei ere.

v. Kudeaketa-moduak espezieen arteko bateragarritasunarekin lotuta daudela azaldu dute; batzuek argi gehiago pasatzen uzten dutelako eta beste batzuek gutxiago, eta batzuek argi gehiago behar dutelako eta beste batzuek gutxiago... Horrek baldintzatu egiten du arraseko mozketak egitea komeni den ala ez eta zein azaleratan.

c. Balorazioa:

Ekarpen gehienak eukaliptoaren baso-erregulazioko prozesura zuzenduta daude, eta gutxi dira luzamenduaren egokitasunera, premiara edo beharrizanera bideratuak; nahiz eta posizioak irmoak diren prozesua azkarra eta luzamendua indarrean jarri aurretik presako landaketara deitzearen ondorio gaiztoa eragiten duen atzerapenik gabea izatea nahi den heinean.

4. **Landa-garapeneko elkarteetako pertsonekin izandako bilera.** Honakoak bertaratu ziren: **ENKARTERRIALDE LGE, GORBEIALDE LGE, URKIOLA LGE, LEA ARTIBAI LGE, URREMENDI LGE (Busturialdea), JATA-ONDO LGE (Uribe).**

a. Bileran jasotako iritziak:

i. Luzamendua, nahitaezkoa baino gehiago, BEHARREZKOA DA, joera kontuan hartuta, egoera arautzeko sakon jorratu ahal izateko.

ii. Eskualdeetan gaurkotasun handiko gaia dela uste du. Egokia iruditzen zaie luzamendua, eta interes kaltetuak daudela badakite.

iii. Kontua da nola, eta galdetzen dute luzamenduaren denbora nahikoa izango ote den espezie hori landatu eta hazteko erregulazio berria eta baldintzak ezartzeko.

iv. Eskualdeen araberako problematika-aniztasuna ikusten da, eta honako hau

comportamientos de consumo, gestión etc.

iv. Valoran que se ponga en valor a los servicios ecosistémicos, no sólo de abastecimiento de madera, sino regulatorios o socioculturales.

v. Plantean que las formas de gestión están relacionadas con la compatibilidad entre las especies, dado que unas dejan pasar más luz y otras menos y unas necesitan más luz y otras menos... esto condiciona si conviene o no hacer cortas a hecho y de qué superficie.

c. Valoración

La mayor parte de las aportaciones está dirigida al proceso de regulación forestal del Eucalipto, y pocas van dirigidas a la pertinencia, urgencia o necesidad de la moratoria, si bien las posiciones son contundentes en cuanto se interesa que el proceso sea rápido y sin demoras que generen un efecto perverso de llamada a la plantación urgente antes de la entrada en vigor de la moratoria.

4. **Reunión mantenida con personas de las Asociaciones de Desarrollo Rural:** Asistieron **ENKARTERRIALDE A.D.R., GORBEIALDE A.D.R., URKIOLA A.D.R., LEA ARTIBAI A.D.R., URREMENDI A.D.R. (Busturialdea), JATA-ONDO A.D.R. (Uribe),**

a. Opiniones recogidas en la reunión:

i. La moratoria más que obligatoria ES NECESARIA, a la vista de la tendencia, para que se pueda abordar en profundidad para regular la situación.

ii. Estima que es un tema de mucha actualidad en las comarcas. Les parece adecuada la moratoria, y son conscientes de que hay intereses afectados.

iii. La cuestión es cómo y se preguntan si será suficiente el tiempo de la moratoria para establecer la nueva regulación y los condicionantes para la plantación y el cultivo de esta especie

iv. Se observa una diversidad de problemáticas por comarcas y se



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

egiaztatzen da:

1. Eskualde batzuetan udalek lortzen dituzten diru-sarrera asko titulartasun publikoko mendietatik datoz (BFAk berak kudeatzen ditu askotan).
2. Koniferoetan banda marroiak duen eragina ere desberdina da eremuen arabera; eta, beraz, mozketa (eta eukalipto-landaketa berriak eskatzea) faktore horrek baldintzatu ahal izan du.
3. Basogintzarako joera argia duten landa-udalerri batzuek ez dute beste diru-sarrera garrantzitsurik basoetatik lortzen direnak baino, eta neurri horrek eragin handiagoa du horietan industria- edo zerbitzu-oinarri handiagoa duten beste udalerri batzuetan baino.
4. Orografia ere desberdina da eskualdeen arabera, eta adierazten dute lurzoruen higadurak eta mendi-hegalen irristatzeek kostu handiak eragiten dituztela (BFAk ordaintzen ditu horiek azkenean)... Mendi-hegal ahuletan makina astunekin esku hartzeak eta mendi-hegal horiei larriki eragiten dieten jarduketak... behin eta berriz gertatzen diren lur-jausiekin... Arekak mantentzea udalerriei dagokie; eta basoak tratatzeko moduaren arabera, gehiago edo gutxiago kaltetzen dira... Europako beste leku batzuetan alderdi horiek arautzen dituzten arauak daude.

v. Mahaigaineratu dute ez dela ahaztu behar baso-eredu zehatzak izan dezakeen dimentsio ekonomikoa, uste baitu agian zuraren industria ez dagoela prestatuta beste baso-espezie batzuekin funtzionatzeko.

vi. Era berean, uste dute baloratu egin beharko litzatekeela zer nahi dugun azalera publikoari eta azalera pribatuari dagokienez; bai eta eskualde bakoitzerako nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako

constata que:

1. Hay comarcas en las que muchos de los ingresos que obtienen los Ayuntamientos, provienen de montes de titularidad pública (muchas veces gestionados por la propia DFB).
2. la afección de la banda marrón en las coníferas también es diferente por zonas, de manera que la corta (y solicitud de nuevas plantaciones de eucalipto) ha podido estar condicionada por este factor.
3. Hay municipios rurales de clara vocación forestal que no tienen otros ingresos sustanciales que los que se obtienen de los montes, donde esta medida afecta más que a otros municipios con una base más industrial o de servicios.
4. También la orografía es diferente por comarcas y señalan que la erosión de los suelos y deslizamientos de laderas, genera grandes costes (que al final lo paga DFB) … La intervención en laderas vulnerables con maquinarias pesadas y actuaciones que afectan seriamente a dichas laderas… con desprendimientos que se repiten… El mantenimiento de las cunetas les corresponde a los municipios y según cómo se traten los montes resultan más o menos afectadas… En otros lugares de Europa hay Normas que regulan estos aspectos.

v. Plantean que no debe de perderse de vista la dimensión económica que puede tener el modelo forestal concreto, porque opina que quizá la industria de la madera no está preparada para funcionar con otras especies forestales.

vi. También opinan que se debiera valorar qué queremos respecto de superficie pública y superficie privada, así como cuál es el modelo de explotación agro-ganadera-forestal para cada una de las Comarcas.



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

ustiapen-eredua zein den ere.

vii. Komunikazioa oso garrantzitsua dela uste dute.

b. Balorazioa:

Luzamendua beharrezkoa dela uste da; eta epe labur, ertain eta luzera neurriaren azpian dagoen dimentsio ekonomikoaz jabetzen dira.

5. **Basogintza elkarteetako eta basogintza eta zurgintza sektoreko pertsonekin izandako bilera.** Bertan izan ziren **Bizkaiko Basogintza Elkartea, Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundea**, **Europako Hegoaldeko Basoginen Elkartea (EHBE) eta BASKEGUR Euskadiko Egurraren Elkartea.**

a. Bileran jasotako iritziak, Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko basogintza elkarteen aldetik eta EHBEren aldetik, kontsulta-aldiaren barruan ekarpen espezifiko bat egiteko eskubidea berentzat gordetzen duten ala ez alde batera utzita:

i. Guztiz kontrako jarrera. Legezko eta baimendutako (justiziak abalatutako) baso-espeziea aukeratzeko jabetza-eskubidea urratzen du.

ii. Gizartean gai honen inguruan dagoen eztabaida aitortzen dute eta laguntzeko prest daude.

iii. Beste tresna batzuk ere badaudela uste dute, hala nola arautzea eta landaketa-ereduari buruzko eztabaida.

iv. Eztabaida hori lehenago hasi behar zen; eta debeku orokor batek eragindako jabetzaren eskubideari eragiten dio, ezin dutelako espezie hori landatu (ezta intsinis pinua bezalako beste batzuk ere) eta ziurgabetasun-maila dutelako. Luzamendua ez da ongi etorria.

v. Mendien araudiaren eta baso-araudiaren (BBAP) balio juridikoa degradatu eta galdu egin dela ikusten da; lurraldearen antolamenduari buruzko araudiaren, LAAen, HAPOren eta ingurumen araudi osoaren kaltetan.

vi. Egoera zaila da; eta ez dugu eskaeren

vii. Estiman que la comunicación es muy importante.

b. Valoración

Se estima necesaria la moratoria y son conscientes de la dimensión económica subyacente a la medida a corto, medio y largo plazo.

5. **Reunión mantenida con personas de las Asociaciones de Forestalistas y del Sector Foresta-Madera:** Asistieron la **Asociación de Forestalistas de Bizkaia,** la **Confederación de Forestalistas del País Vasco, la Unión de Selvicultores del Sur de Europa (U.S.S.E) y La Asociación de la Madera de Euskadi BASKEGUR.**

a. Opiniones recogidas en la reunión, por parte de las asociaciones de Forestalistas de Bizkaia y del País Vasco, así como de USSE, con independencia de que se reservan el derecho a hacer una aportación específica dentro del período de consultas:

i. Postura totalmente en contra. Vulnera el derecho de la propiedad a elegir la especie forestal que sea legal y permitida (avalada por la justicia)

ii. Reconocen el debate que hay en la sociedad sobre este tema y están dispuestos a colaborar

iii. Creen que hay otras herramientas, como puede ser la regulación y el debate sobre el modelo de plantación

iv. Este debate se debiera haber empezado antes, y una prohibición genérica afecta al derecho de la propiedad afectada porque no pueden plantar esta especie (tampoco otras como el pino radiata) y se hallan con un nivel de incertidumbre. La moratoria no es bienvenida.

v. Se observa una degradación y pérdida del valor jurídico de la normativa de Montes y de la normativa forestal (PORF), en detrimento de la normativa de Ordenación del Territorio, DOT, PGOU, y toda la Normativa Medioambiental.

vi. La situación es complicada, y no

Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

ehunekoetan bakarrik geratu behar, baita bertan behera uzteko dagoen joeran ere.

vii. Izango duen eraginaren ebaluaziorik egingo den galdetu dute. Eta jakin nahi lukete nola baloratuko den eragin ekonomikoa arau-prozesuaren nahitaezko txostenean.

viii. Dagoen ziurgabetasunaren aurrean jabet zarentzat ekonomikoki bideragarria den aukera alternatibo bakarra debekatzea oso negatiboa izan daiteke.

ix. Hausnarketa oso sakona egin beharko litzateke luzamendua onartu aurretik.

b. BASKEGURen iritziak, bileran jasotakoak:

i. Elkartearen barruan eztabaida bizia izan ondoren, sektorearen barruan interes desberdinak daudela ikusi da; eta bi jarrerak dibergenteak direla uste dute. Hori dela eta, elkarte gisa, ez dute aldeko edo kontrako jarrerarik agertu nahi; ez dira une honetan posizionatzen hasiko, eta bazkide diren elkarteei askatasuna emango diete egoki iritzitako moduan jokatzeko.

c. Balorazioa:

Hasiera batean, basogintza elkarteen eta EHBEren ekarpenak errotuak dira luzamendu baten egokitasunaren eta aukeraren aurkako noranzkoan; uste baitute badirela alternatibak indarrean dagoen araudi-esparruan espezie horren baso-kudeaketa kontrolatzeko luzamenduaren beharrik gabe.
Legezkoa eta baimendua den baso-espeziea aukeratzeko Jabetza Eskubidea aipatzen dute, baina gai horri buruzko gizarte-eztabaida normalizatzen laguntzeko prest agertu dira.

debemos de quedarnos sólo en los porcentajes de solicitudes sino también en la tendencia al abandono.

vii. Preguntan si va a haber una evaluación del impacto que va a tener. Y quisieran saber cómo se va a hacer la valoración del impacto económico en el informe preceptivo del proceso normativo.

viii. Prohibir la única opción alternativa viable económicamente para la propiedad ante la incertidumbre existente puede ser muy negativa.

ix. Habría que hacer una reflexión muy profunda antes de adoptar la moratoria.

b. Opiniones de BASKEGUR recogidas en la reunión:

i. Después de un intenso debate dentro de la Asociación, se observa que hay diferentes intereses dentro del sector y consideran que ambas posturas son divergentes, razón por la cual como Asociación se abstienen de mostrar postura a favor o en contra, y no van a entrar a posicionarse en este momento, dejando libertad a sus organizaciones asociadas para actuar como estimen oportuno.

c. Valoración

En principio las aportaciones de las asociaciones de Forestalistas y de USSE, son rotundas en sentido contrario a la idoneidad y oportunidad de una moratoria, pues estiman que existen alternativas en el marco regulatorio vigente, para controlar la gestión forestal de esta especie sin necesidad de moratoria.
Invocan el Derecho de la Propiedad a elegir la especie forestal que sea legal y permitida, no obstante, se manifiestan en disposición de colaborar en la normalización del debate social sobre esta cuestión.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

## II.- Hainbat talderen ekarpenak, idatziz jasotakoak

1. **Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeak** idazki bat helarazi du; memoria honi eranskin gisa erantsi zaio. Bertan, *Bizkaiko Lurralde Historikoan eukalipto-landaketen luzamenduarekin ados ez dagoela adierazi du*; baina prest dago espezie horren "balizko" arautze baten "eraikitze" prozesu batean parte hartzeko, baso-kudeaketa iraunkorraren esparruan, honako argudioen arabera:

   a. Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren epaian oinarrituta, uste dute juridikoki, gaur-gaurkoz, ezin direla eukalipto-espezie desberdinak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoan sartu, honako laburpen hauen arabera:
      - i. *"ez dago adostasunik komunitate zientifikoan arau aplikagarrian eskatutako baldintzetan"...*
      - ii. *"epaimahaiak ezin du ondorioztatu sartzeko beharraren ebidentzia zientifikorik dagoenik"...*
      - iii. *"Ez dago irizpide zientifiko erabakigarririk eukaliptoa espezie exotiko inbaditzailetzat hartzeko eta dagokion katalogoan sartzeko"*.

   b. Epai horretatik eta aipatutako arrazoibidetik honako ondorio hau ateratzen dute:
      - i. *"Horrenbestez, legezko baldintza guztiak betetzen dituen espezie hori erabiltzen ez uzteak erabat urratzen ditu baso-jabetzaren eskubideak"*.

   c. Eukaliptoaren landaketei buruz gizartean dagoen eztabaidaren jakitun dela adierazi du; eta, horregatik, elkarrizketa irekitzeko prest agertu dira, haren "eremu teknikoaren barruko balizko arautze espezifikoa eta eraikitzailea"ri buruz lan egiteko, betiere baso-kudeaketa iraunkorraren esparruan.

   d. Adierazi dutenez, PEFC edota FSC ziurtapen-sistemetan ziurtatutako eukalipto-landaketak daude; baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiriak dira

## II.- Aportaciones de distintos grupos recibidas por escrito

1. **La Confederación de Forestalistas del País Vasco** hace llegar un escrito, que se aporta como anexo a esta memoria, en el cual *muestra su desacuerdo a la moratoria de las plantaciones de eucalipto en el Territorio Histórico de Bizkaia*, aunque está dispuesta a participar en un proceso "constructivo" de una "posible" regulación de tal especie, dentro del marco de la Gestión Forestal Sostenible, conforme a la siguiente argumentación:

   a. En base a la Sentencia del TSJ de Madrid, estiman que jurídicamente, hoy por hoy, no se pueden incluir las diferentes especies de eucalipto en el catálogo vasco de Especies Exóticas Invasoras, conforme a los siguientes extractos que reproducen:
      - i. *"no existe en los términos exigidos en la norma aplicable un consenso en la comunidad científica", ….*
      - ii. *"la Sala no puede concluir que exista una evidencia científica de la necesidad de tal inclusión"…*
      - iii. *"No existe un criterio científico determinante para considerar el eucalipto como especie exótica invasora y para su inclusión en el Catálogo correspondiente"*.

   b. De esta sentencia, y del razonamiento mencionado sacan la siguiente conclusión:
      - i. *"Con lo cual, no permitir el uso de esta especie, que cumple con todos los requisitos legales, vulnera rotundamente los derechos de la propiedad forestal"*.

   c. Expresa que es consciente del debate existente en la sociedad sobre las plantaciones del eucalipto, y por ello, muestran su disposición a abrir el dialogo para trabajar sobre la posible regulación específica y "constructiva dentro del ámbito técnico" de ésta, siempre en el marco de la Gestión Forestal Sostenible.

   d. Señalan que existen plantaciones de eucalipto certificadas en los sistemas de certificación PEFC y/o FSC, certificaciones de la gestión forestal sostenible que tienen

Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

horiek, eta jasangarritasunaren alderdi hirukoitza kontuan hartzen dute. Beraz, bizi garen gizarte industrializatuaren egungo eskari eta premien konponbidearen parte izan daitezkeela uste dute. Horregatik, Bizkaiko Lurralde Historikoak ez dio uko egin behar espezie horren "laborantza arrazional eta optimizatuari".

Balorazioa:

a. Luzamenduarekiko desadostasuna erakutsi duten arren, argudioek luzamendua indarrean sartu ondoren ebatzi beharko den sakoneko gaiari egiten diote erreferentzia.
b. Aipatu dute luzamenduak ez duela espezie hori erabiltzea debekatzen, baizik eta landaketa berriak egiteko baimenak atzeratzen dituela dagokion erregulazioa eman arte; eta baso-jabetzaren eskubideak, gure ordenamendu juridikoan, araututa eta esku hartuta daudela, eta indarrean dagoen araudira eta dagozkion administrazio-baimenen sistemara mugatzen direla.

2. **"Kolore Guztietako Basoak" PLATAFORMA**k idazki bat aurkeztu du posta elektronikoz; memoria honi erantsi zaio eranskin gisa. Idazki horretan, honako hau adierazi dute:
   a. Egoki eta zuzen ikusten dute eukalipto labore gehiago landatzeko aldi baterako debekua, 2021a amaitu aurretik aplikatu beharrekoa, baina:
      i. Kezka handiz jaso dituzte eukaliptoen laboreei luzamendua aplikatzeko data datorren udara arte atzeratuko dela dioten adierazpen batzuk; eta horrek eukaliptoa landatzeko kanpaina aurrekoak baino biziagoa egitea ekarriko lukeela uste dute, Galizian duela hilabete batzuk gertatu zen bezala.
      ii. Asko kezkatuko lirateke horrelako kontsulta publikoko prozesu batek iragarritako luzamendua aplikatzeko atzerapen horretan lagunduko balu.

en cuenta el triple aspecto de la sostenibilidad, por lo que entienden que pueden ser parte de la solución a las demandas y necesidades actuales de la sociedad industrializada en la que vivimos, razón por la cual el Territorio Histórico de Bizkaia no debe renunciar al "cultivo racional y optimizado" de esta especie.

Valoración:

a. Si bien muestran el desacuerdo con la moratoria, las argumentaciones hacen referencia a la cuestión de fondo que deberá resolverse una vez la moratoria entre en vigor.
b. Eluden el hecho de que la moratoria no prohíbe el uso de esta especie, sino que pospone las autorizaciones de nuevas plantaciones hasta que no se dicte la regulación correspondiente, así como el hecho de que los derechos de la propiedad forestal, en nuestro Ordenamiento Jurídico, están regulados e intervenidos, quedando circunscritos a la normativa en vigor y al sistema de autorizaciones administrativas correspondientes.

2. **La PLATAFORMA "Kolore Guztietako Basoak"** aporta un escrito vía email, que se aporta como anexo a esta memoria, en el que manifiestan que:
   a. Ven oportuna y acertada la prohibición temporal de plantación de más cultivos de eucaliptos, a aplicar desde antes del final de 2021, pero:
      i. Reciben con mucha preocupación algunas declaraciones que apuntan a un retraso en la fecha de aplicación de la moratoria a los cultivos de eucaliptos al próximo verano, lo cual a su juicio, propiciaría una campaña de plantación de Eucalyptus más intensa que las anteriores, como ya ha ocurrido en Galicia hace unos meses.
      ii. Les preocuparía muchísimo que un proceso de consulta pública como este colabore en el mencionado retraso de la



Elektronikoki sinatutako dokumentua. NUPW-QXOP-SNRS-GPUR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) NUPW-QXOP-SNRS-GPUR en www.ebizkaia.eus.

aplicación de la moratoria anunciada.

b. Proposatu dute:
   i. Arduraz aplikatzea eukalipto-laboreen luzamendua, hitzartutako datan iragarritakoa, 2021a amaitu baino lehen.

   ii. Eztabaida publikoko prozesu hori helburu bikoitzerako gordetzea:
      1. Nola antolatu hektarea muga-kopurua Eucalyptus sp. laboreetarako;
      2. nola lagundu eukaliptoen laborantza berrien debekuari XXI. mendeko erronketara egokitutako basoak bultzatuko dituzten neurriekin: galdutako biodibertsitatea berreskuratzea, klima-aldaketa geldiaraztea, baso-lurren emankortasuna berreskuratzea, eta jabe diren familiei alternatiba errentagarriak eta ekologikoak eskaintzea.
      3. Era berean, Bizkaiko Mendien Foru Arauaren erreformaren esparruan prozesu parte-hartzaile bat garatzea proposatu dute; foru gobernuak ere hurrengo hilabeteetarako proposatu duena.

b. Proponen:
   i. aplicar, responsablemente, la moratoria de cultivos de eucaliptos anunciada en la fecha comprometida, antes de final de 2021.
   ii. reservar este proceso de debate público a un objetivo doble:
      1. Cómo organizar la cifra techo de hectáreas para los cultivos de Eucalyptus sp.,
